

***IBERDROLA: ETEKIN HANDIAK ENPLEGUAREN, ERABILTZAILEEN
ETA INGURUMENAREN BIZKARRETIK***

ELA. 2011ko maiatza

I- 2010: 122.500 EUROKO ETEKINA ENPLEGATU BAKOITZEKO

Iberdrola aparretan dago egoera ekonomikoari dagokionez. Soilik “Energia-Merkatu Nazionale” deitzen dion horretan, hots, espainiar estatuko jardueraren zati nagusian, Emaizen Kontuak datu adierazgarriak ematen ditu. Hain zuzen, 2010eko datuek honakoa islatzen dute:

- Salmenta kopurua 11.554,1 milioi eurokoa izan da, hots, 2009koa baino %38 handiagoa.
- Zerga aurreko etekina 1.191,2 milioi eurokoa izan da, hots, 2009an baino %17,2 gehiago.
- Pertsonal gastuak 677 milioi euro izan dira, diru-sarreraren %5,8, 2009ko %7,6aren aldean.
- Beraz, zerga aurreko etekinak pertsonal gastu osoa baino %76 gehiago izan dira.

Horrenbestez, Iberdrolak etekin maila ikusgarria eta hazkorra lortu du. Bestalde, pertsonal gastuak salmenta kopuruarekin alderatuta oso txikiak dira.

Iberdrolako Emaizen Kontua. 2010-2009. “Energetiko Nazionale” (euroak)

	2010	2009
DIRU-SARRERAK	11.554.100.000	8.371.500.000
Zerga aurreko etekina (ZAE)	1.191.200.000	1.016.700.000
Pertsonal gastuak	677.000.000	639.800.000

Iturria: Iberdrola

Gainera, joan den maiatzaren 5ean Iberdrolak iragarri zuen bere etekin garbia %10 hazi zela 2011ko lehen hiru hiletan.

Orain arte aipatutakoarekin batera, Iberdrolaren egoerari buruzko datu adierazgarria da enplegatu bakoitzeko etekina 2010ean 122.543 eurokoa izan zela.

II- ARGIAREN PREZIOAREN IGOERA, INFLAZIOAREN HIRUKOITZA

Iberdrola, gainerako konpainia elektrikoak bezala, sarri kexu izan ohi da esanez tarifak ez duela argi-indarraren kostua berdintzeko adina ematen. Emaiza ekonomikoak ikusita, ordea, hori ez da inondik ere egia. Halere, argudio horixe onartu du Espainiako gobernuak kontsumoko argindarraren tarifak igotzeko.

Ondoko taulan ikus daitekeenez, gobernuak 2006tik 2011ra bitarteko epealdian tarifa elektrikoak batez beste %47,6 gehitzea onartu du, KPlak tarte berean izan duen hazkundearen hirukoitza (%15,8).

Argiaren igoera handi hau herritarrentzako gainkarga bilakatzen ari da, eta bere helburua enpresa elektrikoen etekinak handitzea da.

ARGIAREN PREZIOA ETA KPI-A 2006-2011 BITARTEAN

	ARGIAREN IGOERA	AURREKO URTEKO KPI
2011	%9,8	%3
2010	%7,6	%0,8
2009	%9,1	%1,4
2008	%9	%4,2
2007	%6,18	%2,7
2006	%5,9	%3,7
2006-2011	%47,6	%15,8

ITURRIA: Azterketa Bulegoa, Espainiako gobernuaren eta INEren datuekin.

III- IBERDROLA, NEGOZIO NUKLEARRAREN AITZINDARI

Energia nuklearra enpresentzako negozio biribila da. Haatik, ondorio latzak izan ohi ditu, Japonian ikusi denez. Energia mota ez segurua eta arriskutsua da, zikina (hondakin erradioaktiboen arriskuak ehunka milaka urte iraungo du), garestia (kostua gizarteari leporatzen zaio), ez da beharrezkoa (badaude alternatibak), klima-aldaketa ere eragiten du eta atzerriarekiko menpekotasun energetikoa dakar.

Iberdrola Garoñako zentralaren jabea da; aipatutako arazoez gainera, zentral hau zaharkituta dago, egoera txarrean eta egiturazko arazoak zein arrisku larriak dauzka. Alabaina, Iberdrolak presioa eragin du, baita lortu ere, Garoñaren bizitza erabilgarria 40 urtetik gora luza zezaten. Helburua argia zen, Iberdrolarentzako negozio itzela den zentrala ustiatzen jarraitzea.

Iberdrolak espainiar estatuko ia zentral nuklear guztietan dauka partaidetza.

IBERDROLAREN PARTAIDETZA ESPAINIAKO NEGOZIO NUKLEARREAN

ZENTRAL NUKLEARRA	IBERDROLAREN PARTAIDETZA %
Garóña (Burgos)	%50
Almaraz I (Cáceres)	%52,7
Ascó I (Tarragona)	%0
Almaraz II (Cáceres)	%52,7
Cofrentes (Valentzia)	%100
Ascó II (Tarragona)	%15
Vandellós II (Tarragona)	%72
Trillo (Guadalajara)	%48

Iturria: Industria Ministerioa

IV- HITZARMENEN SOLDATA IGOERA MUGATUA

Iberdrolaren egoera ekonomikoa ezin hobea den arren, hau ez dute langileek gehiegi somatzen. Izan ere, enpresa aitzindaria baitugu desarautzen eta erabateko malgutasuna ezartzen. Azken hitzarmenean langileen lanaldia 40 ordu gehitu zuen; hau estaltzeko hitzarmenean jaso ziren malgutasun neurriak buruzko propaganda hedatu zuten.

2011-2014 epealdirako sinatu den hitzarmenak oihartzun publikoa izan du, nabarmendu baita “soldatak produktibitatearekin lotzen” direla. Enpresa honek langile bakoitzeko etekinetan urteko 122.000tik gora euro irabazten duelarik, hori egia izatekotan soldata igoera handia egin beharko litzateke, ikusten denez produktibitatea oso handia baita. Halere, hitzarmenean jasotakoa oso bestelakoa da:

- Urteko soldata igoera konturako %1 izango da. Portzentaje hau %0,5 gehituko da dagokion urteko emaitza operatiboa betetzen bada, edota %2,5, ezarritako helburuaren %120 gaindituz gero. Hipotesirik hoberenean (“aurreikuspen bikaina”), soldata igoera %3,5 izango da (2010eko KPI %3 izan zen, eta 2011ko apirileko urte artekoa %3,8). Hots, soldata igoera sistema enpresak alde bakarretik erabakitzen du, eta antzinatasunaren ondorioz langileen arteko desberdintasun soziala finkatu egiten du.
- Enpresa eta zenbait sindikatu (batik bat CCOO) oso urrun joan da, bileretan edukiak eztabaidatzeko aukera galarazteraino. Hau da enpresaren baitako elkarrikeraren sozial delako horren adierazpen gailena; sindikalismoa patronalaren zerbitzura jartzen da horrela.

Beraz, begibistakoa da soldatak produktibitatearekin edo enpresaren emaitzekin lotzeko xedea bakarra dela, soldatak moderatzea edo murriztea.

V- AZPIKONTRATAZIOA: KONECTA KASUA

Iberdrolak bere funtsezko zerbitzu batzuk azpikontratatuta dauzka, hauetan lan egiten duten pertsonen lepotik etekinak handitzeko. Zerbitzu horietako bat telefonozko arreta da. 2000. urtean enpresak Güeñesko (Bizkaia) udalarekin hitzarmena sinatu zuen, honek zerbitzu hori eskaintzeko eraikin bat Iberdrolaren esku jartzen zuelarik. Eraikin honetan 300 lagunek egiten dute lan, gehienbat emakumeak, eta contact center moduan jarduten dira.

Azken 10 urteotan zerbitzua hainbat azpikontrataren esku izan da: Resulta, Customer Works eta azkena, Konecta BTO.

Langileoi estatu mailako hitzarmen bat aplikatzen zaie, erabat prekarioa, mila euroz beherako soldatekin. Kontratu asko lanaldi partzialekoak dira.

2010ean Iberdrolak Customer Works enpresarekin zuen kontratua eten egin zuen, eta ondorioz langile guztiak kaleratu egin zituzten. Enpresa hark beharginei jakinarazi zien uztailaren 31tik aurrera Konecta BTOrentzat hasiko zirela lanean. Operazio honekin enpresaren ondorengotza saihestu nahi zuten, baita berarekin lotuta zihoan antzinatasunaren aitorpena ere. ELA eta LABen atal sindikalek borrokari ekin zioten -gaur indarrean dena-, subrogazioa eta lanpostuak mantentzea lortzeko.

ELAk eskatuta, auzitegiek enpresaren ondorengotza aitortu dute, eta horrenbestez lan-harremana jarraitua da; solidarioki zigortu ditu Customer Works eta Konecta. Baina Konecta kaleratzen ari da enpresaren ondorengotza erreklamatu duten langile guztiak.

Egoera honen ardura Iberdrolak dauka, azpikontratazioaren eta lan-baldintzen prekarizazioaren bideari jarraitzen baitio. Iberdrolak erabaki du, hain zuzen, azpikontratazioa, enpresa aldaketa eta bere lan-baldintzak duintzeko borrokan ari den jendea zigortzea.

Argi asko geratzen da ere botere politikoaren eta Iberdrolaren arteko elkar aditzea; enpresaren esku utzi zituen udalaren lursailak, Iberdrolak gero eta etekin handiagoak lor ditzan. Aitzakia enplegua sortzea omen da, baina zein baldintzatan eta zenbateko bermearekin sortzen diren ahaztuta. Eusko Jaurlaritzak kontratuak amaitzeko EREa onartu du, auzitegietan ere aitortu den enpresa ondorengotza kasu nabarmena izan arren.

VI- ONDORIOAK

1. Iberdrolak etekin itzelak ditu, gero eta handiagoak. Hau enpleguaren, erabiltzaileen eta ingurumenaren bizkarretik lortzen da:

- Enpresak 2010ean 122.000 euroko etekina lortu zuen enplegatuko; aurreko hitzarmen kolektiboan lanaldia 40 ordu luzatu zuen, eta azken hitzarmenean ezarri duen ordainsari sistemak diskriminazioa eta galera dakarzkie langileei (sistema honetan enpresak definitu eta kudeatzen ditu, aldebakarretik, aldagaiak eta helburuak).
- Zerbitzuak azpikontratatzeko politika ezartzen du, eta horrela enplegatutako langileek lan-baldintza oso eskasak eta soldata urriak dituzte.
- Espainiako gobernuak argiaren erreziboa azken 5 urteotako inflazioaren hiru halakoa garestitzea lortu du, horrek biztanleria guztiarentzat dakarren kostuarekin.
- Iberdrolak bere propagandan enpresa berdea dela aldarrikatuagatik, espainiar estatuan energia nuklearraren txapelduna da. Estatuko zentral nuklear gehienetako partaide da, eta Garoñaren bizitza erabilgarria 40 urtetik gora luzatzea iritsi du.

2. Iberdrolak adierazten du, beste edozein kasuk baino argiago, botere politikoaren eta enpresa handien arteko elkar aditzea. Bere presidentea den Ignacio Sanchez Galan Zapaterori aholkua ematen dioten 40 enpresaburuetako bat da; Patxi Lopezen Aholku-Kontseiluko kide da, eta sarri agertu ohi da Jose Luis Bilbao Bizkaiko Ahaldu Nagusiaren aurkezpenetara. Botere politikoa botere ekonomikoaren esanetara dago. Iberdrolaren jokabidea ikusirik, oso larria da agintariei aholkua berak ematea. Iberdrolak etekina handitu nahi du, eta gobernuek men egiten diote.

3. Gai hauekiko isiltasuna orokorra da komunikabideetan. Media nagusiek botere ekonomiko handia duten enpresei buruzko informazioa ezabatu edo erabat zentsuratzen dute. Baita Iberdrolari dagokionez ere; konpainia honi buruzko informazioetan enpresak esandakoa jasotzen da hitzez-hitz, inongo ñabardurarik gabe.